



Gipuzkoako Ur Kantsortzioa
Gipuzkoako Urak

OBRA

“ KONTAGAILUEN INSTALAKUNTZA KONTROL GABEKO PUNTUETAN ”



ZARAUTZ

Marzo - 2020 - Martxoa



AURKIBIDEA

Orria

1. MEMORIA	3
1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA.....	4
1.2 OBREN DESKRIBAPENA	4
1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA	6
1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA	6
1.5 LANEN PLANGINTZA.....	7
1.6 AURREKONTUAK	7
1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA.....	7
1.8 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK.....	8



1. MEMORIA



1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

Zarauzko ur hornidura sareen hobekuntza lanen barnean, garrantzitsutzat hartzen da ur hornidura sarea osatzen duten elementuen berritze edota hobekuntza jarraitua.

Emarien kontrola sarea kudeatzeko funtsezko printzipioetako bat da, eta emari-neurgailuak eta kontagailuak dira informazio hori ematen duten tresnak. Kontrolaren hobekuntzak hornituriko emari guztien informazioa edukitzea behartzen du.

Alde horretatik, egitasmo honek uraren erabilera ematen den baina zenbatekoa ezagutzen ez den erabilera publikoko gune guztietan, hala nola iturriak, urmaelak, parkeak eta lorategiak, neurketa tresnak instalatzeko jarduerak jasotzen ditu.

1.2 OBREN DESKRIBAPENA

Obra lehen aipatutako instalazioen hornidura-lineetan neurgailuak instalatzean datza.

Oro har, neurgailuak instalatzeko, urrats hauek egin beharko dira:

- Bide zoruen eraispena eta hargune hodia lokalizatzeko hondeaketa. Kokapena eta sakoneraren arabera beharrezkoa izango dira, edo ez, kokatze hobiak. Egitasmoan jasotako hobiak neurri jakin batzuei egiten diete erreferentzia. Salbuespeneko egoeratan izan ezik, neurri horien edozein handitze hondeaketako metro kubikoko prezioaren arabera ziurtatuko da.
- Desbideratzeak eragindako sarean eta neurgailuaren konexioa. Hargune hodian ezaugarri zehatzekiko ezjakintasuna dela eta, aurrekontuan balizko aukeren gehiengo handi bat biltzen duten hainbat suposizio planteatu dira. Horregatik korapiloen ataltzeak konektatuko den hodiaren arabera egingo dira, obran benetan gauzatuko unitateak eta materialak ziurtatuko direlarik.



- Bide zoruak jatorrizko egoerara birjartzea.

Kontagailuen hornidura GUSA-ren esku egongo da.

Tarteak amaitzen joan ahala, eragindako ingurune guztietako birjartzea eta garbiketa egiteari ekingo zaio.

Afekzioak

Obra honetan ondorengo afekzioak aurreikusten dira:

- Ibilgailuen trafikoarekiko afekzioak: Ibilgailuen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiari, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoiari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Oinezko trafikoarekiko afekzioak: Oinezkoen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoiari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Beste zerbitzu batzuekiko afekzioak: Beste zerbitzu batzuen gaineko afekzioei dagokionerako, Memoria honen 2. Eranskina dago.

Lan bereziak

Obra honetan ez da lan berezirik edo gauzatze-sistema ezohikorik aurreikusten.



1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA

Sare berriak diseinatzean, irizpide orokor gisa planteatu ohi da, kanalizazio berriak sareko maniobrak erraztu eta, ahal den neurrian, jabe pribatuei kalteak eragitea sahiesten dute lur publikoen, udal-bideen eta sarbide libreko eremuen azpian kokatzea.

Bigarren irizpide bat, sare berriak ordeztzen diren eta zortasuna duten sareen ondoan kokatzea da.

Kasu honetan, irizpide orokor horiek betetzen dira, eroanbide berriak bide publikotan jarriko baitira.

1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA

Ureztatze-ahoak

Hornidura sarea berritzeko proiektu honetan ez da aurreikusten ureztatze-ahorik jartzea.

Sute-ahoak

Hornidura sarea berritzeko proiektu honetan ez da aurreikusten sute-ahorik jartzea.



1.5 LANEN PLANGINTZA

Obra honen exekuziorako 20 asteko epea aurreikusten da.

	ASTEAK																			
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
ZUINKETAK	■																			
SEINALEZTAPENA ETA HOBIAK	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
EROANBIDEAK ETA MEKANISMOAK		■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
FROGAK ETA LOTURAK			■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
FABRICA OBRAK			■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
BIRGAITZEAK		■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
ERREMATEAK																			■	■

1.6 AURREKONTUAK

Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren zenbatekoa HIRUROGEITA HAMAIRU MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA HAMAIKA ZENTIMOKOA (73.470,11 €) da.

Kontrata bidezko Gauzatze Aurrekontuaren zenbatekoa LAUROGEITA ZORTZI MILA ZORTZIREHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMOKOA (88.898,84 €) da, B.E.Z.a barne.

1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

“Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana” Memoria honetako 1. Eranskinean dago.

Oinarrizko azterlana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatuz idatzi da.



1.8 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Proiektua ondorengo dokumentuez osatua dago:

1 Dokumentua MEMORIA

Memoria

1 Eranskina – Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana

2 Eranskina – Eragindako Zerbitzuak

3 Eranskina – EGR

2 Dokumentua PLANOAK

1. Kokapen planoak

2. Hornidurako Egungo Egoeraren oinplanoa

3. Hornidurako Egoera Proiektatuaren oinplanoa

4. Korapiloen Ataltze planoak

5. Zanga Ereduen planoak

6. Hornidura Xehetasun planoak

3 Dokumentua.- BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

4 Dokumentua.- AURREKONTUA

Donostia, 2020ko martxoak

Gipuzkoako Ur Kentsortzioa

Gipuzkoako Urak, S.A.